

SANTIOAK

BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS

PASAI DONIBANE 2023

Pasaiako azken festak dira Donibaneko Santio Jaiak. Azkenak, eta luzeenak. Izan ere, hilaren 24an hasiko dira, uztaileko azken egunean bukatzeko. Aurten, gainera, ez dute geldialdirik izanen: egun guztietarako prestatu ditu Donibaneko jai batzordeak ekitaldiak. Egund seinalatu askoko ospakizun aroa izango dute sanjuandarrek eta hara doazen den-denek.

Santio Egunaren bezperan hasi, eta San Inazio Eguneko su artifizialekin agur esango diete santioei. Bien tarteran aurten habanerarik izango ez duen Santa Ana Eguna, sardina-jate herrikoia egiten den San Pantaleon (hilaren 27an), era guztietako Kuadrillen Eguna (29an), uztailaren 30eko Ez Gaude Denok Eguna, San Inazio... Egund bakoitzak badu zentzua sanjuandarren txokoan, eta hori batez ere herritarrek kalera ateratzen duten grina eta izaeragatik da.

40 eguneko festa zikloa izan du aurten ere Pasaiak. Donibaneko santioetan bada aukera, beraz, oso emankorra izan den garai horri agur esateko. ✕





Sanjoanetan gauetz plazan musika jartzeko «probaldia» egin zuten. Errepikatuko dute. E. E.

Santioak, elkarlanaren festak

Atsedetik gabeko bederatzia eguneko egitaraua prestatu du Donibaneko Jai Batzordeak. Tradiziozko jardueretarako gogoz eta berritasunei beso zabalik dira sanjuandarrak santioen esperoan.



OLAIA GERENDIAIN

Santioetako atsedetik gabeko bederatzia egunetako egitarauaren atzean Donibaneko Jai Batzordea dago. Aurten talde ireki hori hamar-hogei bat lagunek osatu dute, gazteenak 15 urtekoak, eta horitik gora, erretiratuta dauden bizilagunetara. Zonalde batekoak eta besteak. Askotarikoak. «Hori da politena», iritzi dio Edurne Erkizia Etxeberria taldekideak, «adin guztietako eta leku desberdinetako jendea elkartzeko gara, eta oso giro ona dago». Gustura doa hura norbanako gisa, inoren ordezkari izan gabe, hala ere osa baitaiteke jai batzordea. «Uste dut lan polita egiten dugula!».

Eta lan horren lehen emaitzak etzi bertan hasiko dira ikusten bizilagunak. 12:00etan, aiton-amonon aterpean, ikurrinaren igoera egingo dute Migel Alkazar Luzuriaga eta Rosa Sistiaga Iparragirrek. Astelehenean izango da txupinazioa, eta horren ondoren etorriko dira, atsedetik hartzeko tarterik gabe, Santio Eguna, Santa Ana, San Pantaleon, Kua-drillen Eguna eta San Inazio, besteak beste. Izan ere, horiek urteroko nahitaezko hitzorduak dira; baina egitarauak badakar ezer berririk ere aurten.

Erkiziak gustuko du musikaz betetako plazak ikusi ahal izateak egunotan. Izan ere, Santiago plazak jarduera ia denak eta giro nekaezina hartzen baditu ere, dantza eta kanturako gunea, orokorrean, txosnagunea izan ohi da. Sanjoanetan egin zuten lehen saiakera gazteek plaza nagusian musika jartzeko, eta «izuga-

MAKAILO ETXARRI S.L.
Lezo Bide 17/19
PASAI DONIBANE
comercial@makailoetxarri.com
Tel.: 943 51 00 75

rizko giroa» sortu zela berretsi du jai batzordeko kideak. Hain joan zen ongi, non barrutiko jai handietan saiakera errepikatzea erabaki duten. «Ea zer moduz doan», zain da Erkizia, «jendea oso pozik egon zen sanjoanetan, 8-10 urteko gazteak, helduak, adinekoak... Probaldia izan zen ordukoa, eta orain berriro gustatuko litzaidake plaza dantzan eta beteta ikusteak».

SAN INAZIO, GOIZ-GOIZETIK

Jaietako hitzordu kutunenagatik galdetuta, ezin izan du bakarria hautatu sanjuandarrak, baina aipamen berezia egin dio San Inazio Egunari: «Lehen, arraunean ateratzen nintzenez, nire egun puntakoa batelezena zen. Entrenatzen ibiltzen nintzen horretarako». Badira pare bat urte bestela parte hartzen duela Erkiziak batelezen ikuskizunean, bisorearen bestaldetik: «Argazkiak egitera noa, eta berdin disfrutatzen dut! Egun hori oso polita da niretzat, baita horrela ere».

Egurdiko batelezena bezain garrantzitsua izango da baten-batentzat goizean goizeko hitzordua ere: tradiziozko plazako txokolate-jana. Horretan ere parte hartzen du Erkiziak, baina kamera etxean utzi behar izaten du, eskua buruntzaliak hartuta izaten baitu, edalontziak bete eta bete. 07:15ean, jada, lehen egarriak asetzen ari bada, pentsa zein ordutan hasi behar den prestatzen 50 litrotik gorako txokolate erretilu hori. «04:30ean jaiki eta 05:00etan jada hor ari naiz, txokolatea prestatzen. Ia-ia



lazo erretiratuen omenaldiko argazkia. Gaur Migel Alkaraz eta Rosa Sistiagak igoko dute ikurrina. **Urko Etxebeste**

gaupasaz! [barrez esan du]. Eta gustura egiten dut, oso». Bi ordu beranduagokak asebetetzen du Erkizia: «Plazara iritsi, zerbitzatzeko laguntza eskatu eta edonor laguntzeko prest egotea, eta txokolatea banatzen hastean mundu guztia hain kontent ikusteak... Horrek dena ematen dizu. Eta pentsa, hain gauza sinple batekin!». Besteak gozatzen ikusteak

gozarazten du hura; eta gozamen hori kamerarekin harrapatu ahal izateak.

SANTIOAK: HERRIA, ELKARLANEZ

Herritarrek egiten dute herria, beste modurik ez da. Eta horretarako gakoa bataren eta bestearen arteko elkarlanean dago. Filosofia hori jai batzordean jaio eta jaietan gorpuzten da. «Bileretan norbaitek zerbait proposatzen du, besteok jaso eta laguntza behar bada eskua eskaintzen dugu». Adin guztietako sanjuandarrentzako eskaintza prestatzen ahalegintzen dira, eta horretarako baliabiderik preziatuen elkarlana dute Donibanen, arlo ekonomikoan barra-barra xahutzekorik ez baitago: «Denontzako jaiak prestatu behar ditugu, eta gainera, dirurik gabe! [barrez] Hori lortzeko elkarlanean aritzea beste modurik ez da».

Datozen zortzi egunotan Donibane hartuko duten jaiak pizteko arduradunak Donipari areto futbol taldeko kideak eta Basagaitz Gereño eta Amalur Leon arraunlari beteranoak izango dira. Txupinazoa datorren astelehenean, 20:00etan, izango da. Gora santioak! ✕



amua
PASAI DONIBANE

ARROPA DENDA

Eman ezazu paseoa gure herritik, bizi erosketa-esperientzia paregabea aholkularitza pertsonalizatuarekin eta diseinu arternatibo eta eskusiboekin. Zatoz eta ezagutu gaitzazu!

Jai Zoriontsuak opa dizkizuegu

Instagram: amuapasaidonibane



TXULOTXO

RESTAURANTE

restaurantetxulotxo.com

943 52 39 52 | 679 31 73 40

Donibane kalea, 71.
PASAI DONIBANE

contacto@restaurantetxulotxo.com



EROSKI city

Pasai Donibane

Lezo Bide Kalea, 10 - Tel.: 943 34 60 07 - PASAI DONIBANE

Astelehenetik larunbatara
8:30etik
20:30era.

Bertako ekoizleekin konpromisoa

Ongi pasa jaietan!

PROPOSAMENAK

HITZA



'TXIKITEROEN AHOTSAK'

Hilaren 26an, 22:30ean. Aurten ez da habanerarik izango Santa Ana Egunean. Horren ordeaz, ordeaz, sanjuandarraren ekimenez sortutako *Txikiteroen ahotsak* ikus-entzunezkoaren proiektioa egingo dute Santiago plazan, gau giroan.



**EGITARAU
OSO
HEMEN**

labur.eus.oarsoagenda

Olaia Gerendiain



SARDINAK

Hilaren 27an, 19:00etan. San Pantaleon Eguna aski ezaguna da Donibanen, eta inguruko herrietan. Kuadrillak 15:00etan hasiko dira sardina-jate herrikoiaren prestaketan, eta 19:00etan hasiko dira, guneko historiko guztian zehar, horiek banatzen.

HITZA



GOITIBEHERAK

Hilaren 28an, 17:00etan. Herriko gazteenek 10 urtetik gorakoentzako goitibehera jaitsiera antolatu dute. Larrabidetik jaitsiko dira herrirantz gailu gurpildunak. Nahi duenak goitibeherak egin ditzake, baina antolatzaileek ere utz diezazkiekete parte hartu nahi dutenei.

Donosti City / Carlos Bengoa



BATELERAK

Hilaren 31n, 11:00etan. Santioak ez lirateke berdinak izango batelerik gabe. 11:00etan desfilea egingo dute Meipitik plazara, Konstantzia bandarekin. 12:15ean hasiko da estropada, eta ondoren, zortzikoaren eta sari banaketaren tartea iritsiko da.

Taxi Jaizkibel
Donibane. Antxo.
San Pedro. Trintxerpe. Lezo
943.39.14.14

rkasesoria@gmail.com
943114148 · 663443337
Donibane kalea, 2 behea
PASAI DONIBANE

holkularitza asesor

| Fiskala | Kontabilitatea | Lana
| Aseguroak | Finken Administrazioa

**SANJYANDARRA
EDARITEGIA**

Jai zoriontsuak
opa dizkizue!

Donibane kalea, 20.
Tel.: 943 51 52 57
PASAI DONIBANE